

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

FUNTZIO PUBLIKOAREN SAILA

Hautaketa eta Garapenaren Atala

Ebazpen honen bidez Vitoria-Gasteizko Udalean karrerako funtzionario izateko hautaketa-prozesuaren deialdia eta oinarri espezifikoak onartzea. Eskala: administrazio berezia; azpieskala: tekniko; mota: goi-mailako arkitektoa (01a1 kodea)

2022ko maiatzaren 13an, 2022ko uztailaren 29an eta 2024ko ekainaren 7an egindako bilkuretan onetsi zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2022ko enplegu publikoaren eskaintza. 2024ko ekainaren 7an, berriz, 2024. urteari dagokion enplegu publikoaren eskaintza publikoa onetsi zuen.

Funtzio Publikoko zinegotzi ordezkariak 2024ko abuztuaren 1ean emandako ebazpenaren bidez, lan-eskaintza publiko horien hautaketa-prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak onartu dira, araudi espezifikoak aplikatu behar zaien deialdiak izan ezik —inspektoreorde eta suhiltzaile espezialisten lanpostuak—, horiek beren oinarri orokorren bidez arautuko baitira.

Hautaketa-prozesua egiteko, beharrezkoa da deialdia arautuko duten oinarri espezifikoak onartzea (eskala: administrazio berezia; azpieskala: tekniko; mota: goi-mailako teknikaria, arkitektoa; taldea: A; azpitaldea: A1).

Horren haritik, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legeak — Tokiko Gobernu Eraberritzeko Neurriak biltzen dituen abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldatua— 127. artikuluan aitortzen dizkidan eskumenez baliatuz, eta Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarraren 2023ko ekainaren 22ko erabakiaren bitartez nire esku utzitako aginpidea betez, honako hau

EBATZI DUT

Lehenengoa. Karrerako funtzionario sartzeko hautaprobeen deialdia egitea (eskala: administrazio berezia; azpieskala: tekniko; mota: goi-mailako teknikaria, arkitektoa; taldea: A; azpitaldea: A1).

Bigarrena. Hautaketa-prozesu hau arautuko duten oinarri espezifikoak eta gai-zerrenda onartzea. Ebazpen honen I. eta II. Eranskinetan daude jasota.

Hirugarrena. Ebazpena eta dagozkion eranskinak ALHAOn eta, laburtuta, Estatuko Aldizkari Ofizialean (BOE) argitaratzea; azken horren argitalpenak emango dio hasiera eskabideak aurkezteko epeari.

Ebazpen honen kontra, administrazio bidea agortzen baitu, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazten den egunaren biharamunetik kontatuta, edo, aukeran, berraztertze errekurtsoa, erabakia hartu duen organo berari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazte egunaren biharamunetik kontatuta; horren berariazko ebazpenaren kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, errekurtsoa ezesten duen ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera kontatuta.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko abuztuaren 1ean

Funtzio Publikoaren Saileko zinegotzia
JON ARMENTIA FRUCTUOSO

I. ERANSKINA

GASTEIZKO UDALAREN DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK. ESKALA: ADMINISTRAZIO BEREZIA; AZPIESKALA: TEKNIKOAK; MOTA: GOI-MAILAKO TEKNIKARIA, ARKITEKTOA (01A1 kodea)

1. Deitutako lanpostuak

5 plazarako deia egiten da. Eskala: Administrazio Berezia (2110A); azpieskala: teknikoa; mota: goi-mailako teknikaria, arkitektoa; taldea: A; azpitaldea: A1.

Deitutako plazak bat datoz 2022ko Enplegu Publikoaren Eskaintzan (ALHAO, 59. zk., 2022ko maiatzaren 23koa) eta 2024ko Enplegu Publikoaren Eskaintzan (ALHAO, 78. zk., 2024ko uztailaren 1koa) jasotakoekin.

2. Hautaketa-prozesua eta -sistemak

Hautaketa-prozesua oposizio-lehiaketa bidezkoa izango da, eta honako hautaketa- eta banaketa-sistema hauen arabera garatuko da:

1. - Txanda irekiko sistema: 4 lanpostu, derrigortasun-datarik gabeko 3. hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuei dagozkienak.
- 2.- Barne-sustapeneko sistema: Plaza bat, derrigortasun-datarik gabeko 3. hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuei dagokiena.

3. Parte hartzeko baldintza orokorrak

Oinarri orokorretan adierazten diren betebeharez gain, izangaiek honako hauek ere bete beharko dituzte:

- Titulazioa: Arkitekto titulua edo Arkitekturaren Oinarrietako Gradua izatea edo titulu hori emateko ordaindu beharrekoa ordainduta edukitzea, baita lanbidean jarduteko gaitzen duen masterra ere.

Atzerrian lortutako titulazioen kasuan, dagokion baliozkotzea edo, hala badagokio, homologazioaren egiaztatzea eduki beharko da.

- Gaitasun digitalen egiaztagiria (IT txartelak). Eskatutako ziurtagiriak, maila aurreratuko bertsioak eta 2002az geroztiko bertsioak baliozkoak izanik:

- o Windows XP
- o Internet, oinarritzkoa
- o Word XP, oinarritzkoa
- o Excel XP, oinarritzkoa
- o Power Point XP

- Inskripzio-tasa: eskabideak aurkezteko epearen barruan, onartzeko unean indarrean dagoen titulazio-taldeari dagokion tasa ordaindu izana (7.13 tasa. Azterketak egiteko Tasak arautzen dituen Ordenantza Fiskala; 18,80 euro A taldearentzat 2024an).

4. Lanpostuaren katalogoa.

Hautaketa-prozesu honen webgunean eskuragarri dago arkitekto lanpostuaren katalogoa. Bertan jasota daude funtzioak, betekizunak eta gaitasun digitalak (IT

Txartelak).

5. Hautaketa-prozesua

Erreferentziako oinarri orokorretan ezarritakoaren arabera, hautaketa-prozesuak oposizio-fase bat izango du, baztertzaila; lehiaketa-fase bat, ez-baztertzaila; eta praktikaldi bat, baztertzaila. Oinarri orokorrei dagokienez, zehaztapen hauek ezartzen dira:

5.1.-Oposizio-fasea

Fase honetan bi ariketa egin beharko dira, nahitaezkoak eta baztertzailak. Gehienez eskura daitekeen puntuazioa: 83 puntu.

5.1.1.- Sarbide libreko sistema

5.1.1.1.-Lehenengo ariketa: Ezagutza tekniko eta administratiboak. Nahitaezkoa eta baztertzaila. Gehieneko puntuazioa: 35 puntu; gutxienekoa: 17,5 puntu. Test moduko 2 proba egin beharko dira, erantzuteko 4 aukera ematen direlarik, oinarri hauen eranskinetan ageri diren gaien inguruan. Erantzun zuzenengatik 1,00 puntu emango da, eta okerrengatik, 0,33 kenduko. Erantzun baliogabe edo anitzengatik eta zuri utzitakoengatik ez da ez punturik emango ez kenduko.

- **5.1.1.1.1.- 1. proba.** Oinarri hauei dagokion **gai-zerrenda orokorrekin lotutakoa**. Gehieneko puntuazioa: 11 puntu. Lortutako zuzeneko puntuaziorik altuenari ariketaren gehienezko puntuazioa esleituko dio epaimahai kalifikatzaileak, eta gainerako puntuazioak proportzionalki esleituko dira.
- **5.1.1.1.2.- 2. proba.** Oinarri hauei dagokion **gai-zerrenda espezifikoarekin lotutakoa**. Gehieneko puntuazioa: 24 puntu. Lortutako zuzeneko puntuaziorik altuenari ariketaren gehienezko puntuazioa esleituko dio epaimahai kalifikatzaileak, eta gainerako puntuazioak proportzionalki esleituko dira.

5.1.1.2.-Bigarren ariketa: Nahitaezkoa eta baztertzaila. Gehieneko puntuazioa: 48 puntu. Proba teoriko-praktiko bat edo batzuk egin beharko dira, lanpostuaren funtzio eta zereginekin zuzenean loturikoak. Ariketa gainditzeko, gutxienez 24 puntu lortu beharko dira.

Epaimahaiak item bakoitza balioesteko irizpideak gehituko dizkio galdera-koadernotxoari, baita puntuak esleitzeko zuzenketa-formula ere, halakorik bada.

5.1.2.-Barne-sustapeneko sistema.

5.1.2.1.-Lehenengo ariketa: Barne-sustapeneko txanda salbuetsita dago lehenengo ariketako lehenengo proba egitetik. Gainditzeko, gutxienez 12 puntu lortu behar dira ariketa honetan.

5.1.2.2.-Bigarren ariketa: Nahitaezkoa eta baztertzaila. Gehieneko puntuazioa: 48 puntu. Proba teoriko-praktiko bat edo batzuk egin beharko dira, lanpostuaren funtzio eta zereginekin zuzenean loturikoak. Ariketa gainditzeko, gutxienez 24 puntu lortu beharko dira.

Epaimahaiak item bakoitza balioesteko irizpideak gehituko dizkio galdera-koadernotxoari, baita puntuak esleitzeko zuzenketa-formula ere, halakorik bada.

5.2.-Lehiaketa-fasea: Lehiaketa-fasean, izangaiak alegatutako eta egiaztatutako merezimenduak baloratuko dira, eta gehienez ere 17 puntu emango dira, honako irizpide hauen arabera:

5.2.1.-Esperientzia profesionala. Administrazio eta erakunde publikoetan A taldeko (A1) funtzionario gisa eta antzeko maila profesionaleko lan-kontratadun langile gisa izandako esperientzia profesionala baloratzea, baldin eta, epaimahaiaren iritziz, deitutako lanpostuaren edukiarekin eta eginkizunekin zuzenean lotuta badaude eta lanpostu horiek betetzeko beharrezkoa bada Arkitekto titulua edo Arkitekturaren Oinarrietako Gradua eta lanbidean jarduteko gaitzen duen masterra edukitzea. Egun bakoitzeko 0,007 puntu emango da (15 puntu gehienez). Eskabideak aurkezteko epera artekoak bakarrik hartuko dira aintzat.

Ondorio horietarako, honako hauek ere balioetsiko dira: izangaiak senideak zaintzeko edo genero-indarkeriagatiko eszedentzia-egoeran emandako denbora; amatasuna eta aitatasuna erraztea edo bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzen laguntzea xede duten lanaldi-murrizketekin edo baimenekin emandako denbora; eta emakume enplegatu publikoek genero-indarkeriagatiko baimenen bidez baliatutako denbora.

Epaimahai kalifikatzailearen aurrean deklaratu eta egiaztatuko dira egindako zerbitzuak, hark ezartzen duen unean eta moduan. Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioetan emandako zerbitzuak beti alegatu beharko dira, baina epaimahaiak eskatzen duenean baino ez dira egiaztatu beharko, baldin eta ezin badu ofizioz egiaztatu elkarreragingarritasun-plataformaren bidez (NISAE).

NISAEren bidez egiaztatzerik ez bada, eskumena duen organoak emandako ziurtagirien bitartez egiaztatu beharko dira egindako zerbitzuak (lanpostua, zereginak eta denbora adierazi beharko dira). Ez dira balioetsiko zerbitzu zibilen edo merkataritza-zerbitzuen alokairu-kontratuak, bekak ezta prestakuntza-praktikak ere. Eskabideak aurkezteko epera artekoak bakarrik hartuko dira aintzat. Ez dira aintzat hartuko lan-esperientziaren alorreko merezimenduak baldin eta honako datu hauek espresuki adierazten ez badira:

- Betetako lanpostuaren izena eta lanbide kategoria.
- Kontratazio-aldien hasiera- eta bukaera-datak.
- Lanpostuaren zeregin nagusiak, kategoria adieraztea aski deskriptiboa edo erreferentziazkoaren aski antzekoa ez dela uste izanez gero.
- Lanpostuaren titulazio-taldea edo sartzeko eskatzen den titulazioa, izenagatik hori ondorioztatu ezin den kasuetan. Horretarako, lanpostuen katalogoak erants dakizkioke ziurtagiriari.

5.2.2.- Hizkuntzak jakitearen balioespena. Honako hizkuntza hauek jakitea balioetsiko da: ingelesa, frantsesa eta alemana. Europako esparrua hartuko da erreferentziazat, eta gehienez ere 2 puntu emango dira:

B2: 0,50 puntu.

C1: 1,00 puntu.

C2: 2,00 puntu.

5.3.- Euskara jakitearen balioespena. Lehendik egiaztatutako hizkuntza-eskakizuna edo horretarako proban egiaztatzen dena baloratuko da, honako puntuazioaren arabera:

1. HE: 5,00 puntu.
2. HE: 8,00 puntu.
3. HE: 12,00 puntu.

5.4.-Praktikaldia: Lehiaketa- eta oposizio-faseetako emaitzak aintzat harturik, epaimahaiak hiru hilabeteko praktikaldirako izangaiak proposatuko ditu, eskaintzan zenbat lanpostu diren, horrenbeste izangai; epe horretan, lanpostuari dagokion ordainsari osoa jasoko dute. Karrerako funtzionario izendatuak izatekotan, hautaketa-prozesuko aldi hau ere gainditu beharko dute proposatutako izangaiak. Azken fase horretan, batez ere trebetasun pertsonalak ebaluatuko dira, eta horien egokitze-maila lanpostuan jarduteko betekizunei dagokienez. Funtzio Publikoaren Saileko Giza Baliabideen Zerbitzua arduratuko da praktikaldia diseinatu, ikuskatu eta ebaluatzeaz. Orobat, praktikaldia bukatzean, eta tutorearen proposamena aintzat hartuta, ebaluazio-proposamen bat egingo du —'gai' / 'ez gai'—, behar bezala arrazoiturik —kontuan izan beharko baitu praktikaldia gainditu den ala ez, baita lanbide profilerako egokitasuna ere—, eta Funtzio Publikoaren Saileko zuzendariari igorriko dio.

Praktikaldiak barne hartuko ditu egokitzen jotzen diren prestakuntza-ekintzak. Praktiketean dauden langileei aurretik jakinaraziko zaie zein ezaugarri duen fase horrek, zenbat iraungo duen, nor izango duten tutore, zein izango den ebaluazio-sistema eta zein prozedura dagoen ez gaitzat jotzeko proposamenak errekurritzeko. Praktikaldia bukatzen denetik eta lanpostuaz jabetu bitartean izangaiak aukeran izango du dela praktikaldiko funtzionario gisa jarraitu, dela izendapen hori bukatutzat jo.

II. ERANSKINA

Gai-zerrenda

Gai-zerrenda orokorra

1. Espainiako 1978ko Konstituzioa. Oinarrizko eskubide eta betebeharrak. I. titulua (10. artikulutik 52.era).
2. Espainiako 1978ko Konstituzioa. Estatuaren lurralde-antolamendua. Autonomia-erkidegoak: VIII. titulua (37. artikulutik 158.era).
3. Euskal Herriaren Autonomia Estatutua. I. titulua. Euskal Herriaren eskumenak (10. artikulutik 23.era). II. titulua. Euskal Herriaren aginteak (24. artikulutik 34.era).
4. Kode Zibila: Espainiako antolamendu juridikoaren iturriak, arau juridikoen aplikazioa, arau juridikoen eta nazioarteko zuzenbide pribatuko arauen eraginkortasuna (1. artikulutik 12.era).
5. 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa: Legearen xedea eta printzipioak, Udalerria eta gainerako euskal toki erakundeak, Udal-eskumenak. I. II. eta III. tituluak (1. artikulutik 24.era).
6. 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa: Udalerriko auzotarren eskubideak, betebeharrak eta erantzukizunak (43. artikulutik 45.era).

Herritarren parte-hartzea (67. artikulutik 77.era).

7. 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena. Udal errolda, Auzotarren eskubideak eta eginbeharrak (15. artikulutik 18.era).

8.- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituena. Ondasunak, jarduerak eta zerbitzuak (79. artikulutik 86.era).

9. 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena. Toki-erakundeetako langileak (89. artikulutik 104.era).

10. 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena. II. titulua. Udalerria (11. artikulutik 19.era). X. titulua. Biztanle-kopuru handiko udalerrak (121. artikulutik 137.era).

11. 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearena. Legearen xedea eta aplikazio-eremu subjektiboa. Prozeduran interesdun direnak (1. artikulutik 8.era). Administrazio publikoaren jarduerak (13. artikulutik 28.era).

12. 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearena. Denbora-dimentsioa. Epe-mugak eta epeak (29. artikulutik 33.era). Administrazio-egintzak eta egintzen eraginkortasuna (34. artikulutik 52.era).

13. 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearena. administrazio-errekurtsoak: Errekurtsoaren xedea eta errekurtso motak (112. artikulutik 126.era).

14. 9/2017 Legea, urriaren 30ekoa, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzkoa. Legearen xedea eta aplikazio-eremua: xedea eta helburua, aplikazio-eremu subjektiboa (1. artikulutik 3.era); Negozio eta kontratu baztertuak (4. artikulutik 11.era).

15. 9/2017 Legea, urriaren 30ekoa, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzkoa. Sektore publikoko kontratuak: kontratu motak (12. artikulutik 24.era).

16. 9/2017 Legea, urriaren 30ekoa, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzkoa. Sektore publikoko kontratuak: Itun-askatasuna eta kontratuen -gutxieneko edukia, kontratuaren zuzentasuna eta forma (34. artikulutik 37.era) Kontratuaren aldeak: kontratazio organoa (61. artikulutik 64.era), enpresariaren jarduteko gaitasuna eta kaudimena (65. artikulutik 71.era).

17. 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena: Enplegu publikoa lortzea: printzipio gidariak, eskakizun orokorrak (55, 56 eta 59 artikulua) eta hautaketa-sistemak (61. artikulua).

18. 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bategina onesten duena: Funtzionario izaera eskuratzea eta galtzea (60. artikulutik 68.era); funtzionarioen administrazio-egoerak, Euskal Funtzio Publikoaren Legearen arabera. Euskararen erabileraren hizkuntza-normalkuntza, hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoetan Euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 dekretuaren arabera (1. artikulutik 18.era).

19. 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena: Langile motak eta

Enplegatu publikoen eskubideak (8. artikulutik 20.era). Enplegatu publikoen eginbeharrak eta Jokabide-kodea (52. artikulutik 54.era).

20. 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzarako Legearen testu bategina onartzen duena. Atariko titulua eta I. tituluko I. kapitulua

21. 31/1995 Legea, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzkoa. III. kapitulua - Eskubideak eta betebeharrak (14. artikulutik 29.era) V. kapitulua - Langileak kontsultatzea eta langileen partaidetza (33. artikulutik 40.era). Gasteizko Udalaren Laneko Arriskuen Prebentzio Plana (2017ko bertsioa).

22. Gardentasuna. 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa. Hitzaurrea, Aplikazio-eremu subjektiboa (1. artikulutik 4.era); Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea (12. artikulutik 22.era). 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa VI. titulua - I. kapitulua (47. artikulutik 61.era).

23. 2016/679 Erregelamendua (EB), datuak Babesteko erregelamendu Orokorra, 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena: I. kapitulua - Xedapen orokorrak; II. kapitulua - Printzipioak; III. kapitulua - Interesdunaren eskubideak.

24. Gasteizko Udalaren antolakuntza politikoa. Organoak eta funtzioak. Gasteizko Udalaren administrazio-antolakuntza. Organigrama.

25. Gasteizko udalerraren ezaugarriak, lurraldekoak eta sozio-demografikoak. Gasteizko Udalaren kultur eta kirol ekipamenduen mapa.

26. Herritarrentzako Arreta. Herritarrei arreta emateko bideak (udal webgunea, 010, herritarren postontzia, herritarrei laguntzeko bulegoak, udal erregistroa, arreta espezializatuko bulegoak).

27. Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoa: kontzeptua, ezaugarriak eta eskaintzen dituen zerbitzuak. Identifikatzeko eta sinatzeko baliabide digitalak. Gasteizko Udalaren Administrazio Elektronikoari buruzko Ordenantza (22. artikulutik 24.era).

28. Herritarren partaidetza. Parte hartzeko organoak eta bideak. Gasteizko Udaleko Herritarren Parte-hartzearen Araudi Organikoa.

Gai-zerrenda espezifikoak

29. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2024ko apirilaren 24ko 2024/1275 Zuzentaraua (EB), eraikinen energia efizientziari buruzkoa. (1. artikulotik 4.era)

30. 4/2019 Legea, otsailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa. 254/2020 Dekretua, azaroaren 10ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa.

I. Titulua. xedapen orokorrak

II. Titulua. II. Kapitulua. 1. atala helburuak eta ekintza orokorrak

II. Titulua. II. Kapitulua. 2. atala eraikinak

III. Titulua. II. Kapitulua. 1. atala zerbitzu pribatuak eta merkataritza

III. Titulua. II. Kapitulua. 2. atala bizitegi-sektorea eta hirigintza-garapen berriak

31. 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoa.

Zarata-mapak. Zonakatze akustikoa. Kalitate akustikoko helburuak. Zortasun akustikoak. Babes akustiko bereziko guneak. Gune lasaiak. Ingurumenaren gaineko inpaktuaren azterlanak.

32. EKT OD - Zarataren kontrako babesa (HZ). Eskakizunen karakterizazioa eta kuantifikazioa. Diseinua eta neurketa. A eranskina.- Terminologia.

33. Zarata eta Bibrazioen kontrako Udal Ordenantza (Vitoria-Gasteiz).

II. Titulua.- Zarata- eta bibrazio-maila onargarriak.

III. Titulua.- Industria eta jardueri eskatu beharrekoak.

34. Building Information Modeling (BIM)

35. EKT OD - Suteetatik babesteko segurtasuna (SS 1). Barrutik hedatzea, SS 2, 4 Kanpotik hedatzea eta suteetatik babesteko instalazioak, SS 3 Erabiltzaileak ebakutatzea, SS Terminologia.

36. EKT OD - Erabileraren segurtasuna eta irisgarritasuna (ESI). Erabileraren segurtasuna (ESI 1-8).

37. EKT OD - Energia aurreztea (HE). HE0 Energia-kontsumoa mugatzea. HE1 Energia-eskaria kontrolatzeko baldintzak. HE4 Energia berriztagarriaren gutxienekoa etxeko ur beroaren eskarirako. HE5 Iturri berriztagarrietako energia elektrikoaren gutxieneko sorkuntza

38. 25/2019 Dekretua, otsailaren 26koa, Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinen eraginkortasun energetikoaren ziurtapenari eta ziurtapenaren kontrol-prozedurari eta erregistroari buruzkoa. Proiektu estrategikoen eta industria-administrazioaren zuzendaritzaren oharra, administrazio publikoen —edo administrazio publikoak erabiltzen dituen— eraikinen eraginkortasun energetikoaren ziurtagirien kontrolari buruzkoa.

39. Energia Aurrezteko Ziurtagirien Sistema (CAE)

36/2023 Errege Dekretua, urtarrilaren 24koa, energia aurrezteko ziurtagirien sistema ezartzen duena

I. Kapitulumua.- Xedapen orokorrak

II. Kapitulumua Energia Aurrezteko Ziurtagirien Sistema

III. Kapitulumua.- Eskuordetutako subjektuak

TED/815/2023 Agindua, uztailaren 18koa, energia aurrezteko ziurtagirien sistema ezartzen duen urtarrilaren 24ko 36/2023 Errege Dekretua partzialki garatzen duena.

III. Kapitulumua.- Energia aurrezteko ziurtagiriak emateko prozedura

(*Eduki hau gaztelaniaz bakarrik dago eskuragarri)

40. Irisgarritasuna. III. Eranskina. Eraikinetako irisgarritasunari buruzko baldintza teknikoak. 1. artikulutik 9.era V. Eranskina Erabilgarritasun-irizpideak.

41. OD - Erabileraren segurtasuna eta irisgarritasuna (ESI 9). Irisgarritasuna. OD-Erabileraren segurtasuna eta irisgarritasuna (ESI). A eranskina. Terminologia.

42. PASSIVHAUS-ECCN. Passivhaus, EnerPHit eta PHI (energia-eskari txikiko eraikinak) estandarretarako irizpideak.

43. . Eraikuntza Jasangarrien Ziurtagiriak.

LEED v4.1 Kategoriak

LEED v4.1 BD+C: Eraikinen Diseinua eta Eraikuntza (D+CE). Aurre-baldintzen eta kredituen sailkapena

BREEAM Eraikin berriak. Kategoriak

VERDE Edificios 2022 Irizpideak eta adierazleak

(*Eduki hau gaztelaniaz bakarrik dago eskuragarri)

44. 112/2012 Errege Dekretua, ekainaren 26koa, eraikuntzako eta eraispeneko hondakinen sorkuntza eta kudeaketa arautzen duena.

45. 209/2014 Dekretua, urriaren 28koa, eraikuntzaren kalitate-kontrola arautzen duena.

Agindua,

I. Kapitulumak. xedapen orokorrak

II. Kapitulumak. eraikuntzaren kalitatea kontrolatzeko prozesuaren faseak

2016ko ekainaren 15ekoa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena, Eraikuntzaren Kontrol Akustikoari buruzkoa. Agindua. (1. artikulutik 4.era)

2023ko martxoaren 17koa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, eraikinaren airearen kalitateari eta kontrol termikoari buruzkoa.

(1. artikulutik 4.era)

46. Eraikuntza-obretako segurtasunaren eta osasunaren arloko gutxieneko xedapenak finkatzen dituen urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretua.

47. Ingurumen-administrazioa. 10/2021 Legea, Euskadiko Ingurumen administrazioarena. Laugarren titulua. Ingurugiroan eragina duten jardueren antolamendua. I. Kapitulumak. Xedapen orokorrak. IV. Kapitulumak. Jarduera sailkatutako lizentzia. V. Kapitulumak. Jarduera sailkatuaren aurretiko komunikazioa I.C Eranskina. Jarduera-lizentzia sailkatua behar duten jarduera eta instalazioak. I.D Eranskina. Jarduera sailkatuaren aurretik komunikazioa behar duten jarduera eta instalazioak.

48. Ingurumen-administrazioa. 10/2021 Legea, Euskadiko Ingurumen administrazioarena.

Bosgarren titulua. I. Kapitulumak. Ingurumen-ebaluazio estrategikoaren eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren xedapen komunak. Gune babestuak edo babes-erregimenen bat dutenak, Euskal Herriko Natura Babesteko ekainaren 30eko 16/1994 Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren 13. artikuluan eta Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 30., 42. eta 50. artikuluetan jasoak.

49. Ingurumen-administrazioa. 7/2022 Legea, apirilaren 8koa, Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko. VIII. titulua. Lurzoru kutsatuak.

50. Ikuskizun publikoak. 10/2015 Legea, abenduaren 23koa, Jendaurreko Ikuskizun eta Jolas Jarduerena. III. titulua, I. kapitulumak. Establezimendu publikoak irekitzea.

17/2019 Dekretua, otsailaren 5ekoa, jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duena. II. kapitulua. Ekitaldien lekuen baldintzak.

51. Kontratuak. 9/2017 Legea, Sektore Publikoko Kontratuena.

2. Liburua. I. titulua I. kapitulua 2. atala 7. azpiatala: Proiektuen lehiaketei aplikatu dakizkiekeen arauak.

2. Liburua. II. titulua. I. kapitulua. 1. atala: Obra-kontratuaren prestatzeko jarduketak

2. Liburua. II. titulua. I. kapitulua. 2. atala: Obra-kontratuaren egikaritzea.

2. Liburua. II. titulua. I. kapitulua. 3. atala: Obra-kontratuaren aldatzea.

2. Liburua. II. titulua. I. kapitulua. 4. atala: Obra-kontratuaren betetzea.

2. Liburua. II. titulua I. kapitulua. 5. Atala: Obra-kontratuaren suntsiaraztea.

I. titulua I. kapitulua. 2. Atala: Kontratuaren adjudikazioa. 1. azpiatala. Xedapen orokorrak. 145.-146. artikulua.- Adjudikazio-irizpideak.

I. titulua. I. kapitulua. 2. Atala. Kontratuaren adjudikazioa. 2. azpiatala. Prozedura irekia.

52. Kontratuak. 9/2022 Legea, ekainaren 14koa, Arkitekturaren Kalitateari buruzkoa.

I. Kapituluak.- Xedapen orokorrak

II. Kapituluak.- Babesa, sustapena, zabalpena eta gobernantza

(*Eduki hau gaztelaniaz bakarrik dago eskuragarri)

53. 38/1999 Legea, azaroaren 5ekoa, Eraikuntzaren Antolamenduari buruzkoa. II. kapitulua. Eskakizun teknikoak eta administratiboak. III. kapitulua. Eraikuntza-eragileak.

54. 117/2018 Dekretua, uztailaren 24koa, EAEko eraikinen ikuskapen teknikoari buruzkoa.

55. Eraikinak kontserbatzea eta mantentzea: Eraikinaren liburua. (250/2003 Dekretua, urriaren 21ekoa, etxebizitzarako Eraikinaren Liburua arautzen duena eta Agindua, 2010eko ekainaren 16koa). Kontserbatzeko eta mantentzeko prebentzio-neurriak.

56. 317/2002 Dekretua, abenduaren 30ekoa, ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketara babestuei buruzkoa. Jarduketa babestuak / Birgaitze areak. Eredu degradatuaren deklarazioa Gasteizko udalerrian. Ereduak handitzea.

57. 6/2019 Legea, maiatzaren 9koa, Euskal Kultura Ondarearena. VI. Titulua. Kultura ondasunak babesteko araubide espezifikoak, duten babes mailaren arabera.

VII. Titulua. I. Kapituluak. kultura ondasun higiezinak babesteko araubide espezifikoak. X. Titulua sustapen neurriak. (63. artikulotik 66.era)

58. 14/2023 Legea, azaroaren 30ekoa, Euskal Kultura Ondarearen maiatzaren 9ko 6/2019 Legea aldatzekoa.

59. Gasteizko Klimaren eta Energia Jasangarriaren Ekintza Plana. (AE5).

60. 4/1990 Legea, maiatzaren 31koa, Euskal Herriko Lurralde Antolamenduari buruzkoa. (1. artikulotik 23.era)

61. Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduaren gidalerroak: Lurralde-eredua eta bizitegi-kuantifikazioa.

II kapituloa. (3. artikulotik 19.era)

II. eranskina : Ingurune Fisikoaren Antolamendua

62. Araba Erdiguneko Lurralde Plan Partziala. (2023ko hasierako onespena) Vitoria-Gasteizko Hirigintza-plangintzarekiko eraginak.

63. EAeko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana.

449/2013 Dekretua, azaroaren 19koa, EAeko Kantauriko eta Mediterraneoko isurialdeko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren aldaketa behin betiko onartzen duena

Azaroaren 19ko 449/2013 Dekretuaren I. Eranskina

E) Berariazko araudia, osagai hidraulikoaren arabera.

F) Hirigintza osagaiaren arabera berariazko araudia.

64. Ingurumen-ebaluazio estrategikoa: planak eta programak. 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, ingurumen-ebaluazioarena.

II. titulua Ingurumen-ebaluazioa I. kapitulua Ingurumen-ebaluazio estrategikoa

10/2021 legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena. 7. artikulua

II.G eranskina.– Definizioak ingurumen-ebaluazioaren ondorioetarako

65. 7/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onesten duena. II. titulua. Lurzoruaren erregimenaren oinarriak, prozedura arau orokorrak eta arau zibilak.

66. 7/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onesten duena. V. titulua. Balioespenak. VI. titulua. Nahitaezko desjabetzea eta ondare-erantzukizuna.

67. 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa. II. titulua Klasifikazioa eta lurzoruare-araubideak.

68. 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa. III. titulua. I. kapitulua. Hirigintzako antolamenduari eta horrek lurraldearen antolamendurekin daukan harremanari buruzkoa.

69. 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa. III. titulua. II. kapitulua. Hirigintza antolatzeko planak eta gainerako tresnak.

70. 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa. V. titulua.

71. 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa. VI. titulua. II. kapitulua. Hirigintzako lizentziak.

72. 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa. VI. titulua. III. kapitulua. Hirigintzako ikuskapena. VI. titulua. IV. kapitulua. Hirigintza diziplina.

73. 12/2023 Legea, maiatzaren 24koa, etxebizitza eskubidearen aldekoa. Tentsio handiko eremuak izendatzea. Diagnostikoa eta Ekintza Plana.

74. 3/2015 Legea, ekainaren 18koa, etxebizitzarena.

V. Kapitulumua. Babes publikoko bizitegiatarako sistema: babes publikoko etxebizitzan eta zuzkidura bizitokien definizioa eta motak

VII. Kapitulumua eraikinetan eta eraikita dauden hiriguneko eta landaguneko multzoetan esku hartzea.

75. Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala. Xedapen orokorrak. Antolamendu-kategoriak.

II. kapitulumua: jarraibide nagusiak

III. kapitulumua. lurraldearen erabileren definizioa eta jarduerak

IV. kapitulumua. antolamendu-kategoriak

V. kapitulumua: gainjarritako baldintzak

76. 123/2012 Dekretua, uztailaren 3koa, Hirigintzako Estandarrei buruzkoa

77. 105/2008 Dekretua, ekainaren 3koa, 2/2006 Legea garatzen duten presako neurriei buruzkoa.

78. 46/2020 Dekretua, martxoaren 24koa, lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituenak.

79. 90/2014 Dekretua, ekainaren 3koa, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzearen gainekoa.

80. Erdi Aroko Hiriguneko Birgaitze Integraturako Plan Berezi berria (BIPB).

81. 1492/2011 Errege Dekretua, urriaren 24koa, Lurzoruaren Legearen Balioespen Erregelamendua onesten duena.

I. Kapitulumua Xedapen orokorrak

II. Kapitulumua Balorazioak egiteko kontzeptuak eta irizpide orokorrak

III. Kapitulumua Landa-lurzoruaren egoeraren balorazioa

IV. Kapitulumua Lurzoru urbanizagarriaren egoeraren balorazioa

(*Eduki hau gaztelaniaz bakarrik dago eskuragarri)

82. 209/2019 Dekretua, abenduaren 26koa, zeinaren bidez garatzen baita Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legea. (1. artikulotik 23.era)

83. Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren berrikuspena.

Gasteizko hapo-a egiteko oinarri izango diren irizpideak eta helburuak (2021eko ekaina)

(*Eduki hau gaztelaniaz bakarrik dago eskuragarri)

84. Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren berrikuspena.

Lurzoru urbanizaezinaren erabilerak, lurzoru urbanizaezinaren kategoriak eta lurzoru urbanizaezinaren kategoria bakoitzaren erabilera-baldintzak

(*Eduki hau gaztelaniaz bakarrik dago eskuragarri)

85. Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren berrikuspena.

Gainjarritako baldintzak eta gainjarritako baldintzei buruzko araubidea lurzoru urbanizaezinean.

(*Eduki hau gaztelaniaz bakarrik dago eskuragarri)

86. Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren berrikuspena.
Hirigintza-parametroak hiri-lurzoruan eta lurzoru urbanizagarrian
*(*Eduki hau gaztelaniaz bakarrik dago eskuragarri)*

87. . Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren berrikuspena.
Eraikigarritasun haztatua. Plangintzaren garapena eta egikaritzea
*(*Eduki hau gaztelaniaz bakarrik dago eskuragarri)*

88. . Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren berrikuspena.
Bizitegi-ordenantzak.
*(*Eduki hau gaztelaniaz bakarrik dago eskuragarri)*

89. . Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren berrikuspena.
Eraikin industrialei buruzko ordenantzak.
*(*Eduki hau gaztelaniaz bakarrik dago eskuragarri)*

90. 80/2022 Dekretua, ekainaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoan etxebizitzaren eta zuzkidura-bizitokien gutxieneko bizigarritasun-baldintzak eta diseinu-arauak arautzen dituena.

I. kapitulua. xedapen orokorrak

II. kapitulua gutxieneko bizigarritasun-baldintzak eta diseinu-arauak

III. kapitulua. bizigarritasun-ezaren adierazpena.

I. eranskina etxebizitzaren eta zuzkidura-bizitokien gutxieneko bizigarritasun-baldintzak

IV. eranskina. definizioak